

Emakume Gazteen Mugimendu Feministak Donostian. Gure historiatik barne hausnarketara

(The Young Women's Feminist Movement in Donostia.
From our history to an internal deliberation)

Cilveti Pérez, Maider
Ondarreta, 14 – 2. A. 20018 Donostia

BIBLID [1136-6834 (2006), 35; 477-489]

Jaso: 04.11.22
Onartu: 05.10.28

Egungo Donostiako emakume gazteen mugimendu feministentzako, beren helburuetarako eta beren adieraz moduetarako, hiri honetan mugimendu feministek izan duten emakumeen historiaren berri izatea garrantzitsua da. Modu berean aberasgarria ere. Gure helburu berrietarako, eta mugimendu hauen jarraipenerako, ezinbestekoa da gure aitzindariak egindako lana jasotzea. Beraz, artikuluan, Donostian mugimendu feministan aritutakoek egindako lana berreskuratu nahi da, lan honekin emakume gazteok elikatzeko helburuarekin.

Giltza Hitzak: Gazte mugimendu feministak. Donostia. Euskal Herria. Historia. Memoria.

Es importante para los movimientos feministas de mujeres jóvenes de Donostia, para sus fines y sus modos de expresión, conocer la historia de las mujeres vivida por los movimientos feministas en esta ciudad. También resulta igualmente enriquecedor. Cara a nuestros nuevos objetivos, y cara a la continuidad de estos movimientos, es imprescindible recoger el trabajo realizado por nuestras predecesoras. Así pues, en el presente artículo se pretende recuperar la labor realizada por aquellas que han trabajado en el movimiento feminista de Donostia, a fin de que las mujeres jóvenes se nutran de dicho trabajo.

Palabras Clave: Jóvenes movimientos feministas. Donostia. País Vasco. Historia. Memoria.

C'est important pour les mouvements féministes de jeunes femmes de Donostia, pour leurs fins et leurs modes d'expression, de connaître l'histoire des femmes vécue par les mouvements féministes dans cette ville. C'est également très enrichissant. Face à nos nouveaux objectifs, et face à la continuité de ces mouvements, il est indispensable de recueillir le travail réalisé par nos prédécesseurs. Ainsi donc, cet article vise à récupérer le travail réalisé par ces femmes qui ont travaillé dans le mouvement féministe de Donostia, afin que les femmes jeunes se nourrissent de ce travail.

Mots Clés: Jeunes mouvements féministes. Donostia. Pays Basque. Histoire. Mémoire.

1. SARRERA

Komunikazio honetan, egungo emakume gazteen mugimendu feministak aztertzearen helburua dugu. Lehenengo begirada batean, badirudi erlazio gutxi dagoela ikerketa objektu honen eta historiaren artean, baina egungo emakume gazteen mugimendu feministak jasotzearekin batera, mugimendu hauen ibilbidean eta helburuetan Donostiako hirian izandako eta dauden mugimendu feministen eragina zein izan den azpimarratu nahi da. Beraz, egungo egoera, historia eta etorkizunaren arteko lotura jorratzea dugu helburu hurrengo orrietan.

Gertakari bat noiz da historia? Idazleak edo esatariak iraganean gertatutako zerbait garrantzitsutzat jotzen duenean, edo interesgarria, edota aberasgarria irizten duenean da aipatzen edo ekartzen dena historia. Izan ere, iraganean gertatutako hainbat gauza, aipatzen eta nabarmentzen ez diren bitartean, ez dira historiatzat jotzen. Hori dela eta, eskertzekoa da Eusko Ikaskuntzak VII. Tokiko Historia jardunaldiak antolatzerakoan emakumeen historiak ikusgarri izatera ekarri dituela “Genero Diskurtsoak eta Praktikak. Emakume eta Gizonak Euskal Herriaren Historian” bere proposamenarekin. Emakumeen hitzak ekartzen direnean, beraien aldarrikapenak entzuten direnean, momentu horretan emakumeek izandako bizipenak, bizi proiektuak, aldarrikapenak historiak bihurtzen dira. Gertakariak historiak bihurtzean gertakari horiek partekatzen dituen kolektibo edo giza taldearen nortasunean eta etorkizuneko ekintzetan ere eragina izaten dute. Hori dela eta, gure historian, geografikoki Euskal Herriko historian, ezinbestekoa da emakumeen historia eta historia feminista berreskuratzeko ahalegina egitea.

Hemen jasoko direnak historia zatiak izango dira. Geografikoki, kokapen zehatza dute historiatic hauek. Donostiako hiria dute testuinguru geografikoa. Euskal feminismoaren historian Donostian gertatutako gertakari aipagarriak jasotzen saiatuko naiz hemen. Gertaera hauen ezaugarri komuna, inflexio puntuak direla da; hau da, hauen ondoren etorri diren historien norabidea markatu duten gertakariak izan direla.

Euskal Herriko feminismoaren historia honako espazio honetara ekartzeko oso luzea izan daitekeelako, Donostiako hirian gertatutako feminismoaren historia zuenganatu nahi izan da. Honako zirriborro honen gainean, pertsona ezberdinen ekarpen eta batez ere memoriarekin gure historiaren historia ezberdinak osatzen jarraituko dugulakoan. Historia ere beti idazteko eta komunikatzeko dagoen informazio iturri agortezina baita. Gure memoriak eta memoria hori jasotzen dituzten dokumentuek jarraipena duten heinean, denoi dagokigun historia izatea posiblea egingo dugu.

Horrela, hemen kontatuko direnak, ezagutza “kokatuak” (Haraway, 1988) direla kontutan hartu behar dugu. Bizipen konkretu batzuen bilduma. Dudarik egin gabe, interesatua den ekintza da honako hau –bestela hemen jasoko

duguna ez, baina beste zerbait jasoko genuke. Interes zehatz batekin eta bizipen konkretu batzuen bahetik esaten dira gauza batzuk, beste batzuk isilean mantentzen diren heinean. Hitz egiteko aukera eta entzunak izateko aukera eskaintzen digutenean ere, gure ezagutza “kokatua” dela onartu behar dugu; ikuspuntu, bizipen eta helburu konkretu batzuekin esaten ditugula esaten ditugunak (Haraway, 1988). “Kokapen” honek ez gaitu lotsatu behar, baizik eta gure bizipenak azaldu eta gure aldarrikapenak zentzuzkoak egiteko kome-nigarria da gure iturburua zein den argi plazaratzea. Hortaz, emakume gazte feminista donostiar eta euskaldun moduan esango dira hemen jasotakoak¹.

Feminismoaren historia konkretu batetaz eta honako honen ondorio zuzenak diren egungo emakume gazteen mugimendu feministen inguruan arituko garenez gero hurrengo orrietan, lehenik eta behin, baliagarria izango da feminis-motzat zer ulertzen dugun azaltzea. Feminis-motzat, emakumeen eskubide guztien alde, bai formalak eta bai praktikoak, emakumeen erabakigarritasun politikoa eta beraien bizi proiektuetan erabaki guztiak hartzeko baldintzak emateko borrokatzen duen mugimendu antolatutzat ulertzen dugu. Eta zer ulertzen dugu beraz mugimendu feministatzat? Mugimendu feminista hurrengo puntuetan saiatzen den gizar-te mugimendua da:

- Trata de generar cambios en las condiciones de vida de las mujeres, para que las mujeres en general, y cada una en particular, podamos desarrollar todas nuestras capacidades y nuestro propio proyecto de vida. Pide que las mujeres tengamos libertad para definir por nosotras mismas nuestra identidad, lucha por ganar espacios de libertad para todas.
- Trata de crear estados de opinión y lucha en contra de la situación de discriminación, la subordinación y opresión que sufrimos genéricamente por ser mujeres.
- Avanza algunas propuestas de transformación social para que nunca más las mujeres quedemos invisibles, excluidas o infravaloradas en nuestra aportación social. (Mendía, 1996:17)

Definizio honekin ados egon gaitzke edo ez. Dударik ez, feminismoaren barnean mugimendu eta interpretazio anitz daude, eta hauek, era berean, aldarrikapen ezberdinak ekoiztea ahalbidetu dute. Baina hemen, definizio hauek Donostiako hirian izan dituzten errepresentazioak aztertuko ditugu. Honako hau lanaren zati historikoa izango da. Ondoren, feminismoaren eta mugimendu feministaren definizioek egungo emakume gazteen mugimendu feministan duten interpretazioa ekarriko dugu.

1. Egilearen nortasunak ez dira honako hauetara mugatzen. Bestalde, hemen interesatzen zaigun ezagutza kokatutako honako hauek azaleratzea nahikoa da.

2. EUSKAL HERRIKO FEMINISMOAREN HISTORIA LABURRA

Idatzi honen helburua, hein batean Donostian izandako mugimendu feminista islatzea eta azaleraztea baldin bada ere, zilegi da gogoratzea, mugimendua testuinguru zabalago batean aurrera eraman zela. Donostiako mugimendu feministen ingurukoak hanka motz geratuko lirake Bizkaiko Asanbladaren sorrera eta honek aurrera eraman zuen antolamendua eta emakume feminista elkarlan handiaren aipamenik gabe. Bestalde, ere, estatu espainiarraren baitan frankismoaren bukaeran aurrera eraman ziren jardunaldietara begiratu beharrean gauden. 75. urtean Madrilen aurrera eraman ziren emakume feministen jardunaldiak. 77. urtean berriz Bartzelonan ospatu ziren. Era berean, elkartzeko eta aldarrikapen gune hauek ezin izango ziren posible izan Europa osoan emakumeek hamarkadetan zehar aldarrikatu zuten bozkatzeko eskubiderik gabe, emakumeen partaidetza politikoa formalki posible izan gabe.

Euskal Herriari dagokionez, 1978. urtean² ospatu ziren Leioan, Bizkaiko Asanbladak antolatutako Euskal Herriko lehendabiziko jardunaldi feministak. Momentu horretan eratuak zeuden talde eta asanblada feminista ezberdinak parte hartzeaz gain, herri eta hiri ezberdinetako emakumeen partaidetzarekin aurrera eraman ziren jardunaldi hauek. Euskal Herriko mugimendu feminista-arentzat ikaragarritzko bultzada eta gai berrien lantzea suposatu zuten jardunaldi hauek. Emakume asko bertaratu ziren jardunaldietara. Gehienak, aurretik feminismoaren inguruko aldarrikapen eta entzun gabekoak, izaki sorpresa eta izua ere sentitu zuten. Hurbildutakoetatik batzuk talde feministetan elkartzen hasi ziren eta beste batzuk beraien bizitzarekin aurrera jarraitu zuten feminismoarekin erlaziorik izan gabe.

Gipuzkoari dagokionean behinik behin, herrietako koordinadora feminista sortu zen Leioako jardunaldi hauen ondotik. Herri ezberdinetan sortu ziren talde feministak koordinatzeko, harremanetan jartzeko eta elkar lanean aritzeko modua izan zen honako hau, nahiz eta azkeneko urteetan bertan behera geratu den.

Euskal Herria, kasu honetan Hego Euskal Herrian aurrera eramandako aldarrikapen feministen testuinguruan aurkitzen dugu Donostiako hirian momentura arte gauzatu den mugimendu feminista. Hala ere, Donostiako mugimendu feministaren historiarik oraindik ez baldin bada idatzirik jaso, Euskal Herriko gainontzeko lekuetan eraman diren mugimendu feministen historiaren inguruan nahi eta behar baino argitalpen gutxiago dago. Hori dela eta, atal honetan jasoko diren inpresioak, ahoz jasotakoak direla nabarmendu nahi dut. Elkarrizketa eta hitzalditxo txikien ondorio zuzenak³ dira. Hortaz,

2. Euskal Herriko lehendabiziko jardunaldi feministen atzetik beste bi ospatu dira Leioan. Azkenekoa 1994. urtean ospatu zen.

3. Idatzi hau osatzeko hurrengo pertsonengana jo dut: Anabel Sanz, Juana Aranguren, Carmen Pérez, Joxebe Iturriotz, Ana Txurruka, Joxepa Bornaetxea, Margaret Bullen.

data eta zenbaki kontuetan zein beste detailtxoetan hanka sartzeko baimena eskatzen dut. Izan ere, memoria beti ere memoria da, bere huts eta bere argitasun guneekin. Hemen jasotakoekin ez dugu historia osatu nahi, baizik eta historia batzuei espazioa eskaini nahi diegu. Historiak entzuteko espazio berri bat eskaini nahi dugu, eta denbora eta memoriaren poderioz, historia hauek osatuko direlakoan gaude.

Dudarik ez, Bizkaiko Asanblada erreferentzia izan da Euskal Herriko mugimendu feministentzako, eta oraindik ere erreferente ukaezina dugu. Hala ere, Euskal Herriko mugimendu feministaren historia beste nonbaiten aurrera eraman beharreko lana da, eta puntu honekin, soilik, historia hauetan barneratzeko gonbitea egin nahi dugu. Emakumeon historiak, jendarte eta kultura ekintzaile moduan gure burua eta gure nortasuna osatzeko ezinbestekoak izan dira. Hori dela eta, Euskal Herriko herri ezberdinetan bertako emakumeen historia berreskuratzeko bekak eta diru laguntzak eskaintzen diren modu berean –ahalegin eta ideia ona–, ezinbestekoa da emakumeek partaidetza soziala eta erabaki politikoetan egoteko egin dituzten ahaleginak paperean, bideoan edo bestelako komunikazio euskarritan jasotzeko diru laguntzak eta bekak eskaintzea. Feminismo ezberdinen aldarrikapen eta lorpenen historioak idaztea.

Zenbaitetan feminismo hitzari erreparoa zaio. Bestelako historiak aldezen dira zuzenean feminismoetaz hitz egitea saihesten den bitartean. Pertsona askok oraindik ere feminismo hitza bortitza, gaizki ulertuetara erraz hurbil daitekeela pentsatzen duten arren, emakumeen historiak egoteaz gain, feminismoen historia ere bada Euskal Herrian. Jadanik jasoak diren hainbat emakumeen historietarako, erreferentzia eta ulergarritasun testuingurua eskainiko dute feminismoen historiek.

Emakunde, Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumearen Erakundea, 1988. urtean sortu zen. Emakunde aitzindaria izan zen. Autonomien mailan EAE izan zen lehena modu honetako erakundea osatzen. Emakunderen historiaren inguruan hamaika gauza esan daitezke, eta honako hau ez da momenturik ez espaziorik egokiena. Aipatzekotan Euskal Herrian hamarkadetan zehar hainbat emakume ezberdinek landutako mugimendu feminista erakunde honen itzalpean ikus ezin gertatzen direla nahi baino gehiagotan. Askotan, instituzioei feminismoaren aldarrikapenak⁴ mozarrotuta erabiltzen dituztenaren kritika egin zaie eta modu berean mugimendu feministaren elkarrizketa eta elkarlana aurrera eramatearen ezintasuna ere egozten zaie, mugimendu feministaren diskurtsoa bereganatu izatearekin batera.

4. Feminismo ezberdinen diskurtsoak bereganatzeaz gain, feminismoek egindako ekarpenak estali egiten dituztenaren kritikak egin zaizkie instituzioei. Era berean, aldarrikapen eta lan feminista ezberdinen fruituak lorpen instituzionalak bailiran plazaratzearen kritika ere egin zaie. Honek guztiak ondorio txarrak dakartza: instituzioekiko mugimendu feministen mesfidantza eta beraiekin elkarlana aurrera eramateko mesfidantza.

3. DONOSTIA: FEMINISMOEN HISTORIA LABURRA

Historia egitea historiaren gertakari eta gertakizun konkretu batzuk bakarrik kontatzean datza. Beraz, hemen aurkezten den honako dokumentu hau historietako bat bakarrik dela ozen eta garbi esan nahi dugu. Honekin, ez ditugu gai honen inguruan sortu diren eta sortuko diren bestelako historiak kontraesan nahi, nahiz eta gehienetan arrisku honetan jausteko aukerak asko diren. Bestetik, hemen azalduko den historiarekin, zenbait pertsonen memoria historikoa berreskuratu nahi dugu, eta beste historia batzuetara iristeko lehen pausoa eman nahi dugu.

Frankismoaren bukaerak mugimendu eta aldarrikapen sozial eta politikoentzako aro berria ireki zuen. Emakumeek beraien artean antolatzeke ez zuten frankismoa bukatzera itxaron. Baizik eta frankismoan ere, emakumeak elkarrekin antolatzeke ahaleginak egin zituzten. Donostian ere, emakumeak elkarrekin elkartzen eta beraien interesatzen zitzaizkien gaitaz eztabaidatzen frankismo garaian hasi ziren. Goian definitu dugun moduan, elkartze hauek elkartze feministak ziren. Helburu zehatz batekin aurrera eramaten zirelako eta emakumeek pairatzen zuten egoera konkretuari aurre egiteko lan sendoa abiatu zutelako.

1979. urterako, Donostiako hirian mugimendu feminista itzela zegoen. Hiru talde nagusitan banatzen ziren feminista donostiarrek garai honetan:

- Emakumeen Borroka. Emakume abertzaleak ziren talde honen inguruan biltzen ziren emakumeak. Inongo alderdi politikoko kide ez ziren emakumeak ziren honako hauek.
- Autonomoak. Kontxa Azkarate dugu talde honetan nabarmentzen dena, bere inguruan aurrera eraman da beste mugimendu hau. Emakumeen mugimendu independentea da honakoa, ez zen abertzalea, eta ez zuen inongo alderdirekin harremanik. Ikerketara bideratua zegoen taldea zen. Emakumeen autokontzientzia lantzen zuten, emakumea zertan zetzanaren inguruko kontzientzia lantzen zuten taldean maila teorikoan. Gerora ezberdintasunaren politika izendatuko denarekin bat egin zuten.
- Donostiako Emakumeen Asanblada. Alderdi politikoeekin erlazioa zuten emakumeek osatzen zuten honako talde hau. Marxismoaren eragina zuen taldeak, eta beraien aldarrikapenak marxismoaren bitartez interpretatzen ziren.

1979. urtean, Granadan izan zen estatu espainiar mailako mugimendu feministen jardunaldietan, estatu mailan, Euskal Herri mailan eta Donostia mailan ere eragin zuzena izan zuen erabakia hartu zen. Militantzia bikoitza aurrera eramaten zuten emakumeen eta soilik militantzia feminista aurrera eramatea erabaki zuten emakumeen arteko banaketa planteatu zen jardunaldi hauetan. Emakume feministei beraien militantzia zertan zetzan argitzea eskatu zitzaizen jardunaldietan.

Granadatik bueltan, Donostiako talde feministetan banaketa 83. urtearen inguruan eman zen. Horrela, bi talde nagusitan banatu ziren Donostiako emakume feministak: Independenteak, inongo alderdi politikorekin erlaziorik ez dutenak eta Asanblada, alderdietako emakumeekin osatutako mugimendua, nahiz eta hemen kokatzen ziren zenbait emakumeek ez zuten alderdi politikoeekin loturarik. Bi talde hauen arteko bereizketa, desberdintasunaren politika –Independenteak– eta berdintasunaren politikaren –Asanblada– arteko bereizketa dela esan daiteke, beti ere Euskal Herriko testuinguru berezian. Garai horretarako Europako gainontzeko herrialdeetan eta aldarrikapen feministetan aurrera eramane zen banaketa politiko eta teorikoa hain zuzen.

Independenteak, debate teorikoetara bideratzen zituzten beraien ekintzak. Honako talde hau oso txikia zen. Kasu konkrituetan egiten zituzten ekintzak, hau da, kale aldarrikapenak. Koordinadora baten inguruan biltzen ziren Asanbladarekin eta Gipuzkoako beste talde feministekin data zehatzetan elkarlana aurrera eramateko: martxoak 8an, ekainak 28 eta azaroak 25ean.

Asanblada berriz, emakume gehiagok osatzen zuten eta ekintzaileak ziren, kale ekintzak aurrera eramaten zituzten. Donostiako auzoetan hitzaldiak eskaintzen zituzten ere. Militantzia bikoitza aurrera eramaten jarraitu zuten.

Ezker Abertzalean emakumeak Egizan-en izenarekin ekin zioten aldarrikapen feministak egiteari 84. urtearen bueltan. Euskal Herri osoan emakume abertzale feministak lanean jartzeko dinamikak eta elkarteak aurrera eramane zituzten. Talde honen bultzatzailea, beraien hastapenetan Fini Rubio izan zen. Euskal Herriko mailan lan egiten zuten, eta gainontzeko talde feministekin erlazio puntuala zuten. Donostiari dagokionean, martxoak 8, ekainak 28 eta azaroak 25eko egunak antolatzeke biltzen zen koordinadoran parte hartzen zuten hiriko eta Gipuzkoako beste talde feministekin batera.

Emakumearen Mintegia, Donostian, Euskal Herriko Unibertsitatearen barnean 1987. urtean sortutako mintegia izan zen. Estatu espainiarraren barnean, eta akademia mailan, eredu izan zen mintegia izan zen honako hau. Bere jarduna hainbat urtetan aurrera eramane ondoren, bertan behera geratu zen 1993. urtean. Bere jardunen artean, ikerketak, jardunaldiak eta argitalpenak ere aurkitzen ziren. Honako mintegi honek Aldundia, Udaletxea eta Emakundetik ere diru laguntza jasotzen zuen eta bere dokumentazio zentro propioa zuen. Bertan biltzen ziren pertsonak alde batetik formakuntza akademikoa jasotakoak ziren eta bestetik talde feministetan lanean aritutako pertsonak.

Plazandreak, 1994. urtean sortutako emakume feministen plataforma politikoa da. Emakume Independenteen proiektua izan baldin bazen ere, Donostiako emakume feminista guztiak gonbidatu zituzten proiektuan parte hartzera. Independenteeek Celia Amorós gonbidatu zitene Donostiara hitzaldi bat ematera, eta honen ondorioz, emakumeek politikan aritzeko behararen inguruan sakon hausnartzen hasi ziren. Hausnarketa hauen ondotik soilik emakumeek osatutako alderdi politikoa eratzea erabaki zuten, udal hauteskundeetara aurkeztuko zen alderdia. Proiektuaren helburua garbia zen eta garbia izaten jarraitzen du: Donostiako udaletxean emakume donostiarren interesak

defendatuko dituen emakumeen ordezkaritza lortzea. Hamar urte hauetan hiru alditan aurkeztu dira udaleko eta aldundiko hauteskondeetara, eta nahiz eta oraindik ordezkariak ez duten lortu, beraien lana gogoz daramate aurrera. Izan ere Plazandreok ez da soilik alderdi politikoa, baizik eta talde feminista bat ere bada, beraien aldarrikapenak kalean egiten dituen eta urtean zehar hainbat topaketa eta hitzaldi antolatu dituen.

4. EGUNGO EMAKUME GAZTEEN MUGIMENDU FEMINISTA

Benetakoa al da bereziki emakume feminista gazteen mugimenduen behera etortzea eta orokorrean mugimendu feministen behera etortzea? Ahul aurkitzen al da mugimendu feminista Euskal Herrian? Feminismoak akademian eta instituzioetan nolabait ere barneratu ostean esan al daiteke feminismoaren “normalizazioa” pasatu garela? Akademian⁵, feminismoek egindako aldarrikapenak “genero sistemaren” bitartez interpretatzen dira normalean. Beraien interpretazioetan kalean diharduten talde feministen kontzeptuetatik aldentzen dira askotan. Lehen momentu batean, “kaleko” feminismoa eta feminismo akademikoaren artean ez adostasunak egon ziren. Salaketa asko egin zizkioten batak besteari, adibidez akademian ez zela emakumeek benetan behar zutenaren inguruan ekintzarik egiten, eta beraien hausnarketak ez zirela ekintzarako eta egoera aldatzeko baliagarri. Bestetik kale aldarrikapenetan bizi zen eguneroko errealitatea ez zutela jasotzen aurpegiatzen zitzaion.

Baina urteek erakutsi dutenez gero, ez da zentzuzkoa helburu bera baina hau lortzeko modu ezberdinak dituzten pertsonen artean liskarretarako lekuri uztea. Anabel Sanz-ek eta Tere Maldonadok, biak Bizkaiko Asanbladako kideek proposatzen duten hurrengo ekarriko dugu:

Nosotras pensamos que aquí también es hora de superar ciertas dicotomías. Así por ejemplo, hace algunos años era común contraponer un feminismo activista o militante –que se dedicaría fundamentalmente a hacer campañas de denuncia y reivindicación– a otro tildado de “académico” –que se dedicaría más bien a elaborar teoría desde la torre de marfil, ajeno a (y desvinculado de) los avatares de la realidad cotidiana. No parece haber fundamento para que tal dicotomía pueda ser mantenida. La teoría y la práctica política feministas se retroalimentan de forma constante, la una y la otra se generan mutuamente: el feminismo militante elabora saber de la misma manera que el feminismo académico tiene un aspecto innegable de *praxis* feminista (en el ámbito universitario, de investigación etc. en el que tiene lugar). Por ello es más adecuado concebir esos dos polos como distintas caras del feminismo, más que como dos extremos contrapuestos y excluyentes, cosa que por otro lado, es lo que de hecho se hace hoy día. (Sanz & Maldonado, 2003:112)

5. Akademian genero ikasketek izan duten historia eta bilakaera ikusteko, ikusi Margaret Bullen-en liburua *Basque Gender Studies*. Nevada: University of Reno, 2003.

Momentu honetan, antzeko zerbait gertatzen ari da instituzioetan dagoen feminismo "ezkutu" eta kaleko feminismoen artean. Askotan –gehiegitan agian– instituzioetan emakumeen berdintasunaren alde lanean ari diren pertsonak ez dutelako feminista moduan beraien burua izendatzen. Bestetik instituzioek ez dituzte emakume feministekin komunikatzeko bide eraginkorrik eraiki. Aipatzekoa da Emakundek prestatu duen Emakume eta Gizonen arteko Berdintasun Legearen inguruan, Euskal Herrian hamarkadetan aritutako emakume feministak ez direla lege honen idazlan eta eztabaidarako deituak izan. Gainera, lege honen inguruan proposamenak, iritziak eta kritika ematerako momentuan, plataforma baten inguruan bildu dira talde feminista ezberdinak eta emakume banako ezberdinak, baina hala ere, lege eraginkor bat sortzeko egin dituzten proposamen gehienak ez dira kontutan hartuak izan.

Aurreko atalean ekarri dugun historiaren ondorengo zuzena, egun Donostian, beraien burua feminista moduan izendatzen duten bi gazte talde dira. Batetik Medeak taldea dugu eta bestetik, Euskal Herriko Bilgune Feministaren kide diren emakume gazte donostiarrek osatzen duten taldea. Medeak taldea Plazandreako Plataforma Politikotik eratortzen den bitartean, hau da, Plazandreakekin erlazio zuzena duen bitartean, Bilgune Feminista, Euskal Herri osoko mugimendu feministen gunea eta sarea izateko sortu zuten aurretik Egizanen eta beste talde feministetan lanean aritutako zenbait gaztek.

2000. urtean, eta Kordoban ospatutako estatu espainiarreko mugimendu feministaren jardunaldien ondorioz, Plazandreaken proiektura sartu berri zen Joxebe Iturrioz-ek, plataforma honetako kideei gazte talde bat sortzeko ideia planteatu zien. Plazandreako kideek oso begi onez hartu zuten proposamena eta hurrengo ikasturterako, Emakunderen diru laguntzaz, "Feminismo Eskola" antolatu zuten. Bertara momentu horretan Donostian bizi ziren emakume gazte ezberdinak bildu ziren. "Feminismo Eskola" ondoren ere, emakume gazte talde hau biltzen jarraitu zen eta Medeak izendatu zuten beraien burua. Beraien helburuak zeintzuk ziren ere hasiera batetik definitu zituzten: espazio publikoan emakume gazteen aldarrikapenak entzunaraztea, emakume gazteen bizi proiektuak aldagarriak direla adieraztea eta gizarte mugimendu ezberdinekin elkarlana abiatzea gizarte mugimendu ezberdinetan feminismoen mezu eta aldarrikapenak barneratzeko asmotan.

Aipatzekoa da, bertako kideen artean donostiar bakarra egon eta dagoela momentura arte, eta Gipuzkoako, Nafarroako eta Bizkaiko herri ezberdinetatik Donostiara ikastera eta lan egitera etorritako emakume gazteek osatu dutela orain arte taldea. Emakume gazteen hitza eta aldarrikapenak plazaratzeko modutzat kale antzerkia aukeratu dute. Normalean Donostiako kaleetan, beraiek idatzitako eta landutako antzerki lanen bitartez gerturatzen diren pertsonak mezu feministak iritsarazten ahalegintzen dira. Aurrera eraman dituzten antzerki lanen gaiak ezberdinak izan dira, emakumeek pairatzen duten edertasun ereduaren ondorioak, gerrek eta globalizazioak emakumezkoengan duten eragina, lesbianismoaren inguruko hausnarketak.

Aurrera begira talde honek, akademian eta kale ekintzetan munduko herrialde ezberdinetan garatzen ari diren korrante feministetan interesa du. Queer teoriak eta queer ekintzak deitu izan direnaren inguruan beraien interesa plazaratu dute taldeko kideek tailer eta jardunaldi ezberdinetan parte hartuz⁶. Teoria eta ekintza hauek jendartera nola plazaratu lanean hasiak dira jadanik.

Medeak-en beste helburu garrantzitsua Euskal Herrian dauden gizarte mugimendu ezberdinekin elkarlana abiatzea da. Nahiz eta batzuetan helburu hau zaila gertatu, izan ere, talde honetan lanean ari diren emakumeen kopurua eta hauek daukaten denbora ez da izaten inoiz beraien helburuak lortzeko adina, eta helburu honetan etsi ez izana dute meritu. Bestalde, gizarte mugimendu ezberdinekin kontaktuan eta lankidetzat puntuala egiten jarraitzen dute: AHT Gelditu!, EHGAM, Ehunate... Bestetik, plataforma feminista ezberdinetan egoteko ahalegina ere egin dute beraien sorreratik, adibidez, Gipuzkoako Emakumeen Plataforma Feminista, 2005ko Mundu Martxako Plataforma, Berdintasun Legearen inguruko plataforma.

2000. urteko Mundu Martxan koka daiteke Euskal Herriko Bilgune Feministen proiektuaren inguruko lehendabiziko ideia. Mundu Martxa honek Euskal Herriko talde feminista ezberdinak berriz ere lankidetzan aritzea ekarri zuen. Ondorioaz, Martxa honek eskainitako bultzada baliatzeko asmotan, sare feminista bat osatzearen ideia inguruko hausnarketak hasi ziren. Baina beraien behin betiko sorrera 2001. urtean abenduan Leitza ospatu zen Euskal Emakume Feministen Jardunaldien ondoren izan zen. Bertan, emakume feministen sarea beharrezkoa zela ikusi zen. Euskal Herriko Bilgune Feministari 2002. urteko apirilean hasi zitzaion sare forma ematen. Emakume gazte donostiarrek sare honen funtzionamendurako lan egiten dute. Bilguneak hasieratik hiru helburu nagusi izendatu zituen:

- a) Emakumeen bizi baldintzak hobetu. Hobetzea bizitzako arlo guztietan aurrera eraman beharrezkoa da.
- b) Gure historia eta gure egoera zein den ezagutu, patriarkatuak sistema moduan existitzen duela jakin.
- c) Emakume izatearen kontzientzia. Banakako moduan eta kolektiboki ere emakumeak garenaren kontzientzia izatea.

Antolamenduari dagokionean, lau lan taldeetan antolaturik dago:

- 1.- Komunikabideak.
- 2.- Hezkuntza.
- 3.- Kultura.
- 4.- Bizi baldintzak edo sozio ekonomia taldea.

6. *Maratón Postporno*, 2003. urteko ekainean Bartzelonako MACBA-n ospatutakoa eta *Sexu Gunea Berritoki Politizatzea Egungo Arte Jardunetan* Donostian Artelekun 2004. urteko irailaren 8tik 16era ospatutako.

Lau lantalde hauek oso zabalak dira. Horrela barne argitalpenen bitartez, lau talde hauen artean barne komunikazioa etengabea da gainontzeko lan taldeetan egiten ari diren lanaren inguruko berri daukate kide guztiek. Adibidez, komunikabideetako taldeak estilo liburuak bukatu berri du, eta honako hau sare osoari jakinarazten zaio.

Euskal Herriko talde feministekin lankidetzaz bultzatu nahi da Bilgunetik. Borroka berdinean baldin bagaude emakume guztiak, gehiagotan egin behar ko genuke lana elkarrekin, erlazio konstanteagoa eta elkarlan handiagoak fruitu goxoagoak emango lituzke.

ONDORIOAK

Egun Donostian dihardugun emakume gazte feministei hiri honetan gertatutako mugimendu feministaren historia ez zaigu iritsi. Batetik akademia mailan ez zaigu historia honen berririk iristen, eta hiriko memoria historikoan ere Erreala ligako txapelduna izan zeneko denboraldiak gogoratzen dira beste gertakari batzuk guztiz ahazten diren bitartean edota hiritarren belarrietara iristen ez diren bitartean. Nahiz eta Donostiako hirian mugimendu feministek hiri osoan oihartzuna izan zuten ekintza zuzenak burutu, badirudi honako ekintza hauek ez dutela lekurik hiritarren memoria historikoan. Hau da, ez da ahotik ahora eta belaunalditik belaunaldira pasatzen den informazioa, ezta emakumeetatik emakumeetara ere. Gure hiriko kaleek, plazek eta eraikinek nekez jasotzen dute emakumeen izenik, eta jasotzen dutenean, nekez dira emakumeon borrokan egondako emakumeen izenak inprimatzen⁷.

Askotan, feminismoaren borrokan ari garenoi ere, nekez iristen zaizkigu gure aurrekariet burututako ekintza, bilera eta publikoan agertzeko estrategien ingurukoak. Hori dela eta, orrialde hauetan ekarri diren historiak, ez dute izan nahi mugimendu feministaren historia ofiziala, ezta gutxiagorik ere. Bestalde, emakume gazte feministak, gure historian ere, erreferente eta egoera eredu-garriak ditugula erakusteko baliagarria izango denaren esperantzarekin aurrera eramandako idatzia da honako hau.

Gure feminismoaren historian izandako gertakari, ekintza, gaizki ulertuak –izan ere guri ezarritako ereduaren aurka ari garenean erraza izaten da sentimenak harrotzea– jaso beharrean aurkitzen gara ondoren gure arteko elkar-lana posiblea egiteko. Ezinbestekoa gertatzen da gure aurrekariet egindako “hutsak” ezagutzea eta hauetatik ikastea. Donostian emakume gazteen mugimendu feminista nahi baino txikiagoa da, baina ez da ahula izango elkarren lanen berri baldin badugu eta elkarrekin proiektuak eta aldarrikapenak abiarazten baldin baditugu. Ez gara ahulak izango elkarlanean aritzeko gai baldin bagara, ekintzak eta pentsamenduak ahal den neurrian bateratzen baldin baditugu.

7. Aipatzekoa da nola Plazandreak plataformak Donostiko udalari egindako proposamenen ondorioz, Donostiako Udalak Clara Campoamor sufragistaren izenarekin bataiatu zuela enparantza bat. Baina Clara Campoamor izeneko plazan ez dago ez ataririk, ez tabernarik ezta ere bestelako komertziorik, beraz, nork aipatzen du plaza hau? Nork daki non dagoen?

Donostian diharduten emakume gazteen mugimendu feministei erronka berriak eta helburu berriak planteatzen zaizkie. Esan daiteke, emakume gazte hauek, feminismo akademikoa eta “kaleko” feminismoarekin nolabaiteko lotura eta uztartzea burutu dutela. Feminismoak akademian bere espazioa du Euskal Herrian. Nahiz eta guk nahi bezain handia ez izan feminismoaren presentzia gure ingurune geografikoan eskaintzen den oinarrizko heziketa, batxilergoa eta giza zientziak ikasgai duten fakultateetan, dudarik ez, feminismo honek gazte feministen formakuntzan eragin zuzena izan duela. Feminismoaren inguruan biltzen diren gazte askok, feminismoaren inguruko berri, lehenengo momentu batean akademiaren bitartez jaso dutela nabarmentzea ezinbestekoa da. Beraz, feminismo akademikoa eta “kaleko” feminismoaren arteko dikotomia eta batera ez etortzeak alde batetara utzi baina, bi norabide hauek batera puntua topatuko dutenaren esperantza dugu. Izan ere, honako lankidetzaz izango da gure egungo jendartea ulertu eta aldatzeko modurik aberasgarriena.

Gazteek egun feminismoaren berri iturri ezberdinetatik jasotzen dute. Internetez atzerrian, ekoizten diren teoriak guregana iristeko oso denbora gutxi behar dute. Bestetik, gu bizi izan dugun 70, 80 eta 90ko hamarkadetako Europako eta Ameriketako Estatu Batuetako mugimendu feministen aldarrikapenak liburuetan eta irakasleen ahotan entzun izan ditugu, baina ezer gutxi Euskal Herriko mugimendu feministaz.

Eta hemendik aurrera nora goaz? Gure aitzindariak egindako lanaren berri izan nahi dugu. Gure historia desestali nahi dugu. Baina honek ez du esan nahi atzera begira geratuko garenik, baizik eta gure historia baliatuko dugula gure aldarrikapenak sendoago egiteko eta hitz egiteko espazioa berriz ere gure egiteko. Gure inguruneke emakumeen bizi proiektuetan eta bizi baldintzetan gure mugimendu feministak izan duen garrantzia nabarmendu nahi dugu. Honekin batera, gure apustua zein den ere azaldu nahi diogu jendarteari. Zeintzuk dira gazte feministen aldarrikapenak? Gure aitzindariak egindako aldarrikapenak egiten jarraitzen ditugu. Izan ere hauetako gehienak ez dira oraindik bete. Bestalde, hausnarketa teoriko eta praktikoko berriak beharrezkoak ditugu, diskurtso berriak. Gure aitzindariak aurrera eramandako diskurtso eta ekintzak, egungo jendarteari dagokionean, ez dira aurreko garaietan ziren bezain eraginkorrak.

Zentzu honetan nabarmentzekoa da 2004. urteko irailaren 8tik 16ra Donostiako Artelekun aurrera eramandako mintegia. Topaketa garrantzitsua egungo gazte feministen mugimendurako. Mintegi honen izenburua “Sexu Gunea Berrito Politizatzea Egungo Arte Jardunetan” izan zen. Mintegiaren arduradun eta antolatzaileak Erreakzioa Kolektiboa eta Mari Jose Belbel izan ziren. Mintegian parte hartu zuten hizlariak berriz, mundu mailan adituak ziren, beraien artean, Beatriz Preciado, *Manifiesto contra-sexual. Prácticas subversivas de la identidad sexual* lanaren egilea. Aste beteko jardun hau feminismoak, postfeminismoa, queer teoria, transexualitate eta transgeneritatearen inguruan hausnarketa aurrera eramateko egokia izan zen. Mintegiaren kokapen geografikoa ere, nolabait ere, Donostiako mugimendu feminista eta bereziki emakume gazteen mugimendu feminista modu zuzenean eragin

zuelakoan gaude. Queer teoria eta ekintzen ingurukoak Donostiara ekartzen ziren lehen aldia zen. Aste betez, aldarrikapen feminista eraginkorrek egiteko estrategien inguruan luze hitz egin genuen. Aldarrikapen feministak eraginkor azalarazteko estrategiak bildu genituen bertara gerturatu ginen emakume gazte feministak.

BIBLIOGRAFIA:

BULLEN, Margaret. *Basque Gender Studies*. Reno: University of Nevada, 2003.

HARAWAY, Donna J. "Situated Knowledge: the Science Question in Feminism: The Science Question in Feminism and the Privilege of Partial Perspective", *Feminist Studies* 14, no. 3, 1988; 575-599 orr.

MENDIA, Begoña. "Mahai Ingurua. Mugimendu Feminista". In: *Euskadiko III. Jardunaldi Feministak. Mugarik ez emakumeontzat*. Bilbo: Euskadiko Erakunde Feministen Koordinakundea, 1996; 17-19. orr.

PRECIADO, Beatriz. *Manifiesto contra-sexual. Prácticas subversivas de identidad sexual*. Madrid: Opera Prima, 2002.

SANZ, Anabel; MALDONADO, Tere. "Feminismo s. XXI: Notas para un balance y perspectivas". In: *Anuario sobre Movimientos Sociales, Participando en la Red*. Barcelola: Icaria, 2003; 108-119 orr.